

ANIMA: DIRU SARRERAK



- Zenbat eta nola ordaintzeko prest daude bezeroak eskaintzen diegunaren truke?

Bezero ahalik eta gehien erakarri ahal izateko, aplikazioa doakoa izango da. Aplikazioak erabiltzaileengan nahikoa interes eragiten badu, 'premium' harpidetza bat eskainiko dugu, non hilabetero edo urtean behin diru kantitate bat ordainduz, abantaila jakin batzuk eskuratuko dituen bezeroak.

- Diru sarrera motak

→ *PREMIUM*

Aipatu bezala, harpidetza honek bezeroei abantaila eta tresna bereziak eskainiko dizkie. Horien artean iragarkien guztizko ezabatzea, produktu baten izenaren bilaketa bidez lortzea eskuragarri dagoen informazioa (bestela barra-kodea eskaneatuz bakarrik lortu ahalko da), eta bilaketak inolako internet konexio gabe egiteko aukera izatea. Denborak aurrera egin ahala Hilero kobratuko dugun prezioa 2€koa izango da.

- Ordainketa bakarreko diru sarrerak

Urtebetekoa. Urte hasieran ordainketa bakar batez ordaintzeko ahalmena eskainiko dugu. Gainera ordainketa metodo honen bidez hilabete bat doanik eskainiko dugu, hau da, urtero kobratuko den kantitatea 22€koa (2x11) izango da, 24€koa beharrian (2x12), ordainketa metodo hau erakargarriagoa izateko.

- Ordainketa errepikatu bidezko diru sarrerak

Hilean kuota txikiago bat (aipatu bezala, 2€) ordaintzen lortuko ditugun diru sarrerak.

→ DOAKOA

Iragarkien bidez lortuko ditugu diru sarrerak.

- Laburbiltzen, diru sarrerak izateko erabiliko ditugun moduak:

- Publizitatea.
- Harpidetzagatik saria.

- Gure produktuaren prezioak

- **Prezio finkoak:** Premium harpidetzagatik, Hilabetero ordaintzeko kuota (2€), eta urtean behin ordaintzeko kuota (22€).
- **Prezio dinamikoak:** Merkatuaren gorabeherak ez diote bereziki eragiten gure proiektuari, beraz, hasiera baterako, ez ditugu prezio dinamikoak finkatuko.